



# Baimenak eskuliburua

*2017 -1 -5era eguneratutako bertsioa  
Hasierako eskuliburuarekiko aldaketak  
fondo urdinez agertzen dira.*

Eskuliburu honen helburua lansaio, opor, baimen eta abarren inguruko informazio esanguratsuena jasotzea da.

Atal batzu denboran zehar aldatuak izan daitezkeenez, eskuliburu honen eguneratutako bertsio bat aurkituko duzue gure blogean aldameneko QR-a eskaneatuz edo ondorengo helbidea erabiliz:



<http://pixkanakakaskari.files.wordpress.com/2016/06/baimenak2.pdf>



[www.pixkanakakaskari.org](http://www.pixkanakakaskari.org)



**Gipuzkoa:** Jose Montero (Monti) - Koldo Sulibarria - Iker Antolin - Arturo Llorente - Xabier Ubillos - Carlos Agote - Amaia Murguiondo - Iñaki Zubimendi - Borja García - Joserra Tolosa - Naiara Ugarte - Iñaki Zabala - Olatz Legarda-Ereño - Iker Ozteta - Rubén Santos **Araba:** Diego Barrero - Ana Rosa Martínez de Aguirre - Sergio Garaluze **Barcelona:** Jordi Varela - Eduardo Azurza - Cristina Forcadell - Nelly Carrión - Ana Ortega **Burgos:** Iván Pérez **Pontevedra:** Anxo Giménez **León:** David Astiarraga **Cantabria:** Nieves Cobo **Zaragoza:** Miguel Gómez

## Egin zaitez harpidedun!

Gure aldizkaria harpidetzei esker eusten da (15 euro/urte) eta, datorren alea mundiala izango denez, boletin hau bete dezakezu oraindik harpidedun ez bazara hurrengo alea zure postuan jaso ahal izateko. Bidali beredaz edo balijaz **Pixkanaka Kaskari - Garibai 15 - Donostia**-ra edo e-mail bidez, [pk@kutxabank.es](mailto:pk@kutxabank.es) helbidera.

Izen abizenak .....

Bulegoa .....

Kontu zenbakia .....

# ESKULIBURUA

## AURKIBIDEA

<b>LANSAIOARI BURUZ</b>	4
LansaiO Orokorra	
LansaiO Jarrantua asteko arratsalderik gabe	
Ordutegi malgutasuna	
Ordutegi konpentsazioak	
Betebehar saihetsezinak, ofizialak, pertsonalak...	
KontziliaziOrako 15 orduak	
Derrigorrezko prestakuntzarako 15 orduak	
<b>OPORRAK, LIBRANTZAK, FESTAK...</b>	5
Oporrak	
Librantzak	
Zaindariaren festak eta jai-egun erdiak	
<b>ORDAINDUTAKO BAIMENAK</b>	8
Ezkontza	
Seme-alaben jaiotza	
Senideen ezkontzak	
Ohiko etxebizitza aldaketa	
Heriotza	
Istripua edo gaixotasun larria	
<b>MURRIZPENAK, ESZEDENTZIAK...</b>	10
LansaiO murrizpenak	
Ordaindu gabeko baimenak	
Lan Hitzarmenean jasotako modalitateak	
Eszedentziak	
<b>AMATASUNA/AITATASUNA</b>	12
Amatasuna: aurretik, erditu ondoren, edoskitzea...	
Aitatasuna	
Umeen zaintzagatiko lansaiOaren murrizketa	
Diru-laguntzak	

# LANSAIOARI BURUZ

## Lansaio Orokorra

Lansaio orokorraren ordu-kopurua 1.545h-koa da, honi derrigorrezko prestakuntzarako 15h-ak gehituz, eta 27 opor-egun eta 3 librantza-egunekin.

## Lansaio Jarraitua asteko arratsalderik gabe

- Maiatzak 1etik irailak 30era.
- Urteko lehen astean.
- Urteko azken bi asteetan.

## Ordutegi malgutasuna

Malgutasunaren topea bulegoan egon beharrezko derrigorrezko tarteak ezartzen du: irekiera baino 15 minutu lehenago eta itxi ondoreneko 10 minutu.

## Ordutegi konpentsazioak

Hizkuntza ofizialaren ikasketarako egindako ikastaroengatik. Praktikan, euskera. Irizpide orokor gisa, ikasten emandako denboraren erdia suposatuko du denborazko subentzioak, baldintza batzu betez (Hitzarmeneko 5. X.G.)

### Zer gertatzen da Ostegun Santuko arratsaldearekin?

Ostegun Santuan ez da arratsaldean lan-egiten eta ez da berreskuratu behar, erkidegoren batean jai ez bada ere.

## Baimenak betebehar saihetsezin, ofizial edo pertsonalengatik

**Ez berreskuragarriak:** Hauteskunde mahaia (ordaindutako eta ez berreskuragarri diren 5 ordu), herri epaimahaikide (beharrezko denbora), eta abar.

**Berreskuragarriak:** Ondorengo gaietatik batzu lansaioaren ordutegiaren barne nahiz kanpo izan daitezke, eta eztabaidagarria izan daiteke langileak berauen ordutegia aldatzeko duen gaitasuna. Lan-ordutegian badira, baimen berreskuragarrietarako eskubidea dago:

- Errenta aitortpena egitea.
- Egintza notarial eta juridikoak.
- Ikasketa azterketak.
- Norberaren miaketa medikoak. Senideei medikura laguntzea kontziliaziorako 15 orduetan jasotzen da. 15 ordu horiek gaindituz gero, laguntzeak egiten jarraitu dezakegu baina berreskuratzea eskatu diezagukete.

## Kontziliaziorako 15 orduak

Urtean zehar 15 ordu egongo dira erabilgarri, justifikatuak eta ez berreskuragarriak.

### Ordu hauek egun osoak hartzeko erabili ditzazket?

Ez da hori bere helburua. Beste kontu bat da, orduak hartzea eragin duen zergatia uste baino gehiago luzatzea. Adb: umearekin larrialdietara goaz lehen orduan eta artatu, plakak atera, analisiak egin, berriro sendagilearen zain egon... azkenean goiz osoa bertan pasa beharra dugu.

### Horrek 15 ordu besterik ezin dudala hartu esan nahi du? Zer gertatzen da 15 orduak gastatu eta gehiago behar badituz?

Hartu daitezke, baina 16. ordutik aurrerakoak berreskuratzea eskatu diezagukete.

## Derrigorrezko prestakuntzarako 15 orduak

Lan-egutegiaren ordutegiaz kanpo ezarritakoak dira.

### Adi “gonbidatu naute” eta “behartu naute”-ren arteko desberdintasunari.

15 ordu horietan sartzen diren derrigorrezko ikastaroen deialdia Prestakuntzatik bidaltzen diguten berariazko posta baten bidez egiten dute eta argi jartzen du 15 ordu horien barne dela. Derrigorrezko ikastaroek 15 ordu baino gehiago suposatzen ditzazkete (araudiagatik, enpresak hala erabakita, e.a) baina 16tik aurrera lan-ordutegiaren barne izan beharko dute.

# OPORRAK, LIBRANTZAK, FESTAK...

## Oporrak

Langilego guztiak, edozein dela ere bere maila edo antzintasuna, 27 lan-eguneko oporrek izango ditu. (30.1.art)

### Oporretarako debekatuak dauden epeak ba al daude?

Badira zenbait kondaira oporrei buruz. Abenduan ezin direla hartu, adibidez.

Ba hori ez da horrela: ez dago urteko inongo garai oporrik hartu ezin daitekeenik.

5. orrialdea: *kontziliaziorako orduak 15etik 20ra gehitzen dira.*

### Kontziliaziorako 20 ordu

Urtean zehar 20 ordu egongo dira erabilgarri, justifikatuak eta ez berreskuragarriak.

#### Ordu hauek egun osoak hartzeko erabili ditzazket?

Ez da hori bere helburua. Beste kontu bat da, orduak hartzea eragin duen zergatia uste baino gehiago luzatzea. Adb: umearekin larrialdietara goaz lehen orduan eta artatu, plakak atera, analisiak egin, berriro sendagilearen zain egon... azkenean goiz osoa bertan pasa beharra dugu.

#### Horrek 20 ordu besterik ezin dudala hartu esan nahi du? Zer gertatzen da 20 orduak gastatu eta gehiago behar badituz?

Hartu daitezke, baina 21. ordutik aurrerakoak berreskuratzea eskatu diezagukete.

#### Lan-saio murrizpen kasuetako oporren kalkulua.

Murrizpena orduzka bada, ez dago aldaketarik. Murrizpena egunetan biltzen bada, murrizpenaren proportzio berean egokituko da opor-egunen kopurua.

## Librantzak

Lanaldi Orokorreko langileek, (...) 3 egun libre izango dituzte urteko, konpentsazio gisa. (24.1.i art.)

#### Zer gertatzen da librantzekin lansaio murriztu kasuetan?

Murrizpenak asteko arratsaldeak lan ez egitea suposatzen badu, **3 librantza-egunak galtzen dira**, bere jatorria lansaio orokorrean ematen den ordutegi-gainditzean bait dute, kasu honetan halakorik gertatuko ez delarik.

Murrizpenak lehen sei hilabeteko arratsaldeak lan ez egitea badakar (urtarriletik apirilera bitartekoak), **2 librantza-egun galduko dira**.

Murrizpenak bigarren sei hilabeteko arratsaldeak lan ez egitea badakar (urriatik abendura bitartekoak), **librantza-egun 1 galduko da**.

#### Jarraian hartu al daitezke?

Bai, kontutan izan behar dena “zerbitzu beharren arabera” hartu beharko direla. “Zerbitzu beharrei” lan-karga gutxiagoko epe batean zoragarri etor dakieke hiru librantza egunak jarraian hartzea.

#### Opor-egunen aurretik edo ondoren hartu daitezke?


“Oporrekin metatu” ezin izateak ez du esan nahi ezin direnik aurretik edo ondoren hartu. Ahal da.

## Zaindariaren festak eta jai-egun erdiak

Herri denetan zaindariaren jai-egun bat eta 4 jai-egun erdi hartu ahalko dira.

Gabon eta Urtezahar egunak ere 4 orduko jai-egun erdiak izango dira, 8:30h-tatik 12:30h-tara.

4 jai-egun erdiak desberdin ospatuko dira, aste nagusia (edo antzekoren bat) duten edo ez dutenaren arabera.



### Herriko jai-egun bat larunbatean bada, galdu egiten dut?

Hitzarmen Kolektiboaren 24.c art.-k dioenaren arabera librantza egun bat gehiago dagokie herri horretako langileei “urteko lanorduen kopuruaren gaineratik geratuko liratekeen orduak konpentsatzeko”, beti ere Udaletxeak, Aldundiak edo dagokion erakundeak ez badu beste data batengatik aldatzen, horrela balitz, data berri hori izango litzatekeelarik jai-egun berria.

### Eta zaindariaren eguna jada ospatu duen herri batetara aldatzen banaute, jatorrizkoan jai-egun hori ospatu gabe?

“Urteko lanorduen kopuruaren gaineratik geratuko liratekeen orduen” kontzeptuagatik, librantza egun bat gehiago dagokit.

### Nork erabakitzen du herri batean 4 jai-egun erdi edo librantza egun bat egiten den?

Herri batzutan ohiturek argi uzten dute erabakia zein den. Beste batzutan, urte haseran zuzendaritzak erabakiko du 4 jai-egun erdiak (egun horietan bulegoa ordutegi murriztuarekin irekiz) edo librantza-egun gehigarri bat egongo den.

## ORDAINDUTAKO BAIMENAK

### Ezkontza

15 egun natural.

#### Noiztik hasten dira kontatzen?

Lanera joan beharko nukeen lehenengo egunetik kontatzen hasten dira 15 egun naturalak. Hau da, ezkontza larunbatean bada, astelehenetik aurrera kontatuko lirateke.

#### Opor, librantza, eta abarretara gehitu daitezke?

Ez dago hori debekatzen duen araurik.

#### Izatezko bikote egiten banaiz, badut baimenik?

Bai, zure erkidegoko indarreko lege-eskaerak betez gero.

#### Behin baino gehiagotan ezkonduz gero, baimena izango dut aldiro?

Bai, ez dago mugarik ez estatutuan, ez Hitzarmenean. Izatezko bikoteen kasuan aldiz, Hitzarmenak argi esaten du behin bakarrik ahalko dela. (29.art)

### Seme-alaben jaiotza

2 egun. (\* Ikusi Amatasun/aitatasun baimenak)

### Senideen ezkontzak

Egun bat.

#### Zein senide hartzen dira kontutan kasu honetan?

2. gradurarteko senideak.

#### Ezkontzara joateko desplazamendua beharrezkoa izanez gero, egun gehigarriak izango nituzke?

Ez. Desplazamenduetarako egun gehigarriak heriotza, istripu edo gaixotasun larrien kasuetan bakarrik jasotzen dira.

### Ohiko etxebizitza aldaketa

Egun bat.

Lan Hitzarmenean 5 egun jasotzen dira derrigorrezko lekualdatze kasuetarako, etxebizitza aldaketa badago.

*Adi!: Lan Hitzarmena 2016/12/31-rarte dago indarrean.*



**Heriotza:** ezkontidea edo 1.gradua: 5 egun natural. Besteak 2.gradurarte: 3 egun natural.

**Istripua edo gaixotasun larria:** ezkontide edo 1.gradua: 3 egun natural. Besteak 2.gradurarte: 2 egun natural.

**Desplazamendua badago (>250km joana):** 2 egun gehigarri (Hitzarmeneko 29.art.). Desplazamenduagatiko egun gehigarriak aurreko bi kasutan bakarrik aplikatuko dira: heriotza eta istripu edo gaixotasun larria.

**Noiztik hasten dira kontatzen?**


Printzipioz, zergatia ematen denean. Adibidez, heriotza larunbat batean izaten bada, larunbatak ere kontatuko luke. Beste kontu bat istripu edo gaixotasun larri kasuetako baimen egunen kasuan aplikazioaren atzerapena eskatzea da. Adibidez: 2 anai-arrebak gaixo dagoen aita zaintzeko 6 egun behar izanez gero, ez du zentzurik biek lehen egunetan egunak hartzea eta 4.tik aurrera laguntzarik eman ezin izatea.

**Denak jarraian hartu behar al ditut?**

Heriotza kasuetan hori da ohikoena. Istripu edo gaixotasun larri kasuetan, gaixoa zaintzeko hobe bada beste modu batetara hartzea, bulegoko arduradunarekin hitzegitea komeni da, denentzat egokia den irtenbide bat bilatzeko.

*Adi! Mediku-informazioa isilpekoa da eta ezin digute hortaz galdetu, eta gutxiago larria zer den edo ez den erabakitzea sartu.*

**AHAIDETASUN-MAILA**



## MURRIZPENAK, ESZEDENTZIAK...

### Lansaio murrizpenak

Aurrerago zehazten diren seme-alaben zaintzagatiko murrizpenez gain, Hitzarmenak %50 arteko **menpekoen zaintzagatiko lansaiio murrizpenak** jasotzen ditu.

Murrizpen hauek eragindako soldata gutxitzeagatik diru-laguntzak eskatu daitezke erakunde publikoetan.

Murrizpen hauek proportzio bereko murrizpenak dakartzate soldata, gizarte segurantza eta BGAE-rako ekarpenean.

### Ordaindu gabeko baimenak

**Justifikatutako zergatiak:** hitzarmenean jasota dauden zergatien arabera, gehienez ere 6 hilabete. Urtean behin gehienez.

**Justifikatu gabeko zergatiak:** 55 urte baino gehiagokoek: 1 eta 6 hilabete artean.  
55 urte baino gutxiagokoek: 3 eta 6 hilabete artean.

BERRIA

10. orrialdea: 2016ko azaroaren 3an sinatutako Berdintasun Planean jasotako berrikuntzak.  
*Genero indarkeriazko arrazoiengatik baimen mota berriak.*

### Aparteko arrazoiak: genero indarkeriagatik biktimak

**Lansaio murrizpenak: %50-a arterainoko lansaiio murrizpena** eskatzeko aukera.

**Kontratu-etetea: 6 hilabeterainoko (12 hilabeteraino luzagarria) kontratu-etetea** eskatzeko aukera.  
Enpresako lehen 3 hilabeteetako soldata ordainduko luke.

Arrazoi honengatik egindako lekualdaketa eskakizunek nahitaezko lekualdaketek jasotzen dituzten laguntza baliokideak jasoko lituzkete.

### Lan Hitzarmenean jasotako modalitateak:

Neurri hauek 2016-12-31 arte izango dira indarrean.

Kontratu-etetea:

3 urtez %30 kobratuz, beste 3 urteko epea amaitzean.

3 urtez %60 kobratuz.

espikatzen da.

**AMAITUA**

Adib: 6 hilabetez lana egin eta beste 6 deskantsatu. Banaketa aldatu daiteke 3-6-3 eginez, eta abar.

## Eszedentziak

Denbora jakin batez kontratua eteteari deitzen zaio. Bankuak ez du soldata ordaintzen eta ez du GS-ra ekarpenik egiten, ezta BGAE-ra ere. LE-ren 46.artikuluaren arabera eszedentzia bat horrelakoa izan daiteke:

### ►Derrigorrezkoa

Kargu publikoengatiko eszedentziak dira: alkateak, zinegotziak, e.a.

Kasu honetan, eszedentzia epean antzinasuna ez da eteten, eta baliozko epea da kalteordainak edo "100 batura"-k kalkulatzeko.

**Nola izaten da lanean berriro hastea?** Kargu publikoan amaitu eta ondorengo hilabetean eskatu behar da, eta berehalako hastea izaten da.

### ►Borondatezkoa

4 hilabete eta 5 urte artean. Arrazoitu beharrik gabe eskatzen den eszedentzia da.

Beharrezkoa da enpresan urtebetez finko izatea. Eszedentzia baten ondoren, 4 urtez itxaron beharra dago berriro eskatzeko.

**Nola izaten da lanean berriro hastea?** Eszedentzia epea amaitu baino lehen eskatu behar da eta enpresak urtebete du erantzuteko.

### ►Seme/alaben zaintzagatik

Ezin du 3 urte baino luzeagoa izan.

Seme-alaba naturalen kasuan, jaiotzatik 3 urte bete bitartean.

Adoptatuen kasuan, ebazpen judizial edo administratiboaren datatik 3 urte bete bitartean.

**Nola izaten da lanean berriro hastea?** Epearen amaiera-datan. Lehenengo urtean lanpostua gordetzeko eskubidea dago (15 eta 18 hilabete artean familia ugari orokorra edo berezien kasuan).

- Diru-laguntza publikoak eskatu daitezke neurri honek sortzen duen soldata galeragatik.
- Kasu honetan, eszedentzia epean antzinasuna ez da eteten, eta baliozko epea da kalteordainak edo "100 batura"-k kalkulatzeko.

### ►2. graduko senide baten zaintzagatik

Gehienez 2 urtekoa izango da.

Senide horrek bere kabuz zaintzeko zailtasunak izan behar ditu eta ordaindutako aktibitaterik ezin du izan.

**Nola izaten da lanean berriro hastea?** Epearen amaiera-datan. Lehenengo urtean lanpostua gordetzeko eskubidea dago (15 eta 18 hilabete artean familia ugari orokorra edo berezien kasuan).

- Diru-laguntza publikoak eskatu daitezke neurri honek sortzen duen soldata galeragatik.
- Kasu honetan, eszedentzia epean antzinasuna ez da eteten, eta baliozko epea da kalteordainak edo "100 batura"-k kalkulatzeko.

Hauetaz gain, Hitzarmenak **60 urte baino gehiagokoentzako eszedentzia** jasotzen du: Enpresak Gizarte Segurantzaren hitzarmen bereziaren kostua bere gain hartuko du jubilazio momenturarte. (*Praktikan, eszedentzia mota hau ez du inork eskatzen, Lan Akordioa indarrean den bitartean aukera hobek bait daude*)

# AMATASUNA/AITATASUNA

## Aurrez

Jaiotza aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko teknikak: Lansaio-orduetan egin behar direnean, beharrezko denbora.

**Berreskuratu behar al dira?**  
Ez, ez dira berreskuragarriak.

**Erditze aurreko baja medikoa:**  
Ohiko gaixotasun baten izaera eta tratamendu berbera du.



## Erditu ondoren

16 asteko kontratu-etetea (+ 2 aste erditze anizkoitzetako 2. umetik aurrera) Gizarte Segurantzaren kontura.

7 egun natural kontratu-etetearen jarraian.

**Noiz hasten dira kontratu-eteteari dagozkion asteak?** Egoera arruntetan, erditze-egunetik. Jaioberriak 7 egun baino gehiagoko ospitaleratzea badu, kontratu-etetea alta-egunetik aurrera hasten da.

**Badira etetearen iraupena aldatzen duten egoerak:**  
Erditze anizkoitzen kasuan.  
Familia ugarien kasuan.



## Edoskitzaroa

1.aukera: Ordubate egunero umeak 12 hilabete bete arte.

2.aukera: Aukera dago orduak baja ondorengo 10 egun naturaleko baimen batengatik aldatzea + 8 lan-egun umearen lehenengo 12 hilabeteetan.

**Edoskitzea erditze anizkoitzen kasuetan:**  
Baimena bi egunetan zabaltzen da seme-alaba bakoitzarengatik bigarrenetik aurrera.

12. orrialdea: *Edoskitze egunak luzatzen dira, erditze anizkoitzetan.*

12. orrialdea: *Gizarte Segurantzaren konturako aitatasun baimena 13 egunetik 4 astetara luzatzen da.*

## Aitatasun baimena

4 aste jarraian Gizarte Segurantzaren kontura (+2 egun erditze anizkoitzetako 2. umetik aurrera).

+2 egun enpresaren kontura.

**Hitzarmenagatiko beste egunak,** amaren orde 16 asteko etetean berak hartu duen zatiaren arabera.

**Badira etetearen iraupena aldatzen duten egoerak:**  
-Erditze anizkoitzen kasuan.  
-Familia ugarien kasuan.

12. orrialdea: *Lansaio-murrizpena arratsaldeetan soilik biltzeko aukera haurrek 8 urte bete arte luzatzen da.*

## Lansaioen murrizpena karguko umeengatik

12 urte bete bitartean

Lansaioaren 1/8 eta 1/2 artean

8 urte bete bitartean

- Lansaioaren 1/8 baino gutxiago murrizteko aukera
- Murrizpena arratsaldeetan soilik biltzeko aukera

BERRIA

12. orrialdea: *Kontziliazio edo genero indarkeriagatiko arrazoiengatik eskatutako zenbait baimen, eszedentzia edo lansaio-murrizpenen kasuetarako finantza erraztasunak aurrirakusten dira.*

## Kontziliazio edo genero indarkeriagatiko arrazoiengatik finantza erraztasunak

Maileguren epea luzatzeko edo amortizazio gabealdia eskatzeko aukera gehinez urtebetekoa seme-alaben edo familiakideen zaintzagatiko eszedentzien edo %30tik gorako lanaldi murrizpenen kasuetan.